

MOZIOA

PETRA LEKUONA Erresidentzietako ELA-SINDIKATUA-langileok 118 greba-egun eginak ditugu, eta talde politikoei gure egoeraren berri eman nahi diogu:

- 4 urte baino gehiago daramagu hitzarmenik gabe, eta lan-baldintzak hobetu gabe.
- Langileen %98ak emakumeak gara.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak zerbitzuaren %90a finantzatzen du, baina ez du erantzukizunik hartu nahi gatazka konpontzeko.
- Gehienbat gizonenak diren beste sektore azpikontratatuaren aldean, esate baterako kale-garbitzaileen aldean, gure soldata-arrakala 6000 € gordinetara da.
- Gaur egun gure nagusiek ordubete eta erdiko arreta eskasa hartzen dute egunean gure egoitzetan. Pertsonala hain da urria, ezin dugula kalitatezko zerbitzua eman.

Egoeraren larritasunaren aurrean hurrengo ESKARI HAUEK egiten dizkiogu talde politikoei, osoko bilkuran eztabaidatu eta onartu daitezen:

- PETRA LEKUONA Erresidentzietako ELA-ko langileei elkartasuna adieraztea eskatzen dugu, orohar Gipuzkoako egoitzetako langileekiko, eta gure borrokarekiko.
- Gipuzkoako Foru Aldundia, zerbitzuaren %90ko finantzatzailea, premiatzea, epe labur batean gatazka laboral eta sozial hau konpontzeko ardura har dezan.
- Gipuzkoako Foru Aldundiari zera eskatzea: greba egiten den egoitzetan eman gabeko zerbitzuaren zati proportzionala egoiliarren ahaideei itzultzea.

Besterik gabe eta aldez aurretik gure eskerrak emanez agurtzen zaituztegu.

2019ko urriaren 24a.

PETRA LEKUONA ERRESIDENTZIETAKO ELA-SINDIKATUA LANGILEOK.